

Eskubide Sozialen Kartak zerbitzu publikoen aldeko greban parte hartzera deitzen du

Otsailaren 15ean lan baldintzen eta kalitatezko zerbitzu publikoen alde deitutako greba ezinbestekoa da bizi kalitatea hobetzeko eta berdintasun ezari aurre egiteko.

Bizi dugun pobretze prozesu orokor honetan, otsailaren 15ean sindikatuek Nafarroako administrazio publikoan deitutako greban parte hartzera animatzen ditu langileak. Nafarroako Eskubide Sozialen Kartak zerbitzu publiko unibertsalak eta kalitatekoak defendatzeko konpromisoa hartu eta deialdi horrekin bat egin du.

Ziur gaude osasunera, hezkuntzara, gizarte zerbitzuetara, kulturara, ingurumenara, berdintasunera eta eremu publikotik ematen diren zerbitzu guztietara bideratzen diren baliabide ekonomikoak pertsonen bizi kalitateari nabarmen eragiten dioten baliabideak direla.

Langileria osoaren lan hobekuntzek eragina dute defendatzen ditugun zerbitzu publikoen arretan, kalitatean eta indartzean. Lan hobekuntza hauek administrazioko langileen egoera benetan arintzera bideratuta izan behar dute, urtez urte euren baldintzak okertuak izan direlako. Premiazkoa da galdutako erosteko ahalmena berreskuratzea, Nafarroako KPIa aplikatuz.

Horretaz gain, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko neurrien alde egiten dugu, langileen lan osasuna babesteko, Nafarroako herritarren eskubideak onartzeko, landa inguruneetan zerbitzuak egoki emango direla ziurtatzeko eta lanaldiak behar bezala berrikustearen bidez enplegu gehiago eskaintzeko.

Hori guztia gerta dadin, Nafarroako Gobernuak lan hobekuntza horiek sortuko dituzten aurrekontu partidak bideratu behar ditu. Horretarako, argi dugu beharrezkoa eta premiazkoa dela erreforma fiskal sakona egitea.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Eskubide Sozialen Kartatik administrazio publikoko langile guztiei dei egiten diegu greba horretan parte hartzeko eta gizarte osoa animatzen dugu egun horretako ekitaldiekin bat egitera. Goizeko 11:30ean kontzentrazioa egongo da diputazioaren parean, eta 17:30ean autobus geltoki zaharretik abiatuko da manifestazioa.

Nafarroa, 2023ko otsailaren 13a